ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko urriaren 30a, asteazkena • 124 zk.

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

## EUSKO JAURLARITZA

### EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

### Arabako Lurralde Ordezkaritza

**Lear Corporation Álava, SL enpresaren akordio partziala**

Ebazpena, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da, Lear Corporation Álava, SL enpresaren partzialeko akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 01003422012008.

AURREKARIAK

2024ko irailaren 13an aurkeztu da, ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuen eta langileen ordezkariek 2024ko uztailaren 10eko negoziazio-mahaian sinatutakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikuluak, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikuluak –Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)– dionarekin bat etorriz eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) –hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak– lotuta.

Bigarrena. Negoziazio batzordeak hartutako partzialeko akordioa Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Berdintasun planak, Lan Hitzarmen, eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 4a

*Arabako lurralde ordezkaria*
*MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE*

Langileen ordezkariak Lear Corporation Álava SL enpresaren lantokiko zuzendaritzarekin bildu dira, hitzarmena negoziatzeko bileran.

Bi alderdiek ordainsarien gaineko erabakia adostu dute eta, ondorioz, Lear Corporation Álava SL enpresaren gaur egungo hitzarmen kolektiboaren 12. artikulua aldatu dute:

**Lehena**

Akordio ekonomikoa: soldata-tauletan ehuneko 3,75ko soldata-igoera aplikatzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2024. urterako: ehuneko 3,75.

Igoera horrek kategoriaren araberako soldata-kontzeptuei eragiten die (oinarrizko soldata, ordainsari osagarria eta borondatezko ordainsaria).

Apirileko aparteko ordainsarian ehuneko 3,75eko igoera. KPI erreala berrikusteko klausula batekin, hitzartutako igoera gainditzen badu.

**Bigarrena**

Erregistratzea, argitaratzea eta artxibatzea. Lear Corporation Álava, SLU enpresaren hitzarmen kolektiboko soldatak berrikusteko eta taulak onartzeko akta enplegu zuzendaritza nagusira bidaltzea, egoitza elektronikoaren bidez, indarrean dagoen legediaren arabera hura erregistratu, argitaratu eta artxibatu dezan.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2024ko soldatak. - Soldata-taulak - 2024ko hitzarmen kolektiboaren negoziazioaren % 3,75

**Fabrika**

| Kategoriak | Oinarrizko soldata 2023/2024 | 3,75% | Oinarrizko soldata 2024 | Ordainsari osagarriak 2023/2024 | 3,75% | Ordainsari osagarriak 2023 | Borondatezko ordainsariak 2023/2024 | 3,75% | Borondatezko Ordainsariak 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2. mailako ofiziala | 37,95 | 1,42 | 39,37 | 18,70 | 0,70 | 19,40 | 16,25 | 0,61 | 16,86 |
| 3. mailako ofiziala | 37,82 | 1,42 | 39,24 | 13,14 | 0,49 | 13,63 | 17,18 | 0,64 | 17,82 |
| Peoi espezialista | 37,82 | 1,42 | 39,24 | 13,14 | 0,49 | 13,63 | 17,18 | 0,64 | 17,82 |

| | Zenbatekoa 2023/2024 | 3,75% | Zenbatekoa 2024 |
|---|---|---|---|
| Absentismo plusa | 82,82 | 3,11 | 85,93 |
| Produkzio prima | 71,61 | 2,69 | 74,30 |

**Bulegoak**

| Kategoriak | Oinarrizko soldata 2023/2024 | 3,75% | Oinarrizko soldata 2023/2024 | Ordainsari osagarriak 2023/2024 | 3,75% | Ordainsari osagarriak 2024 | Borondatezko Ordainsariak 2023/2024 | 3,75% | Borondatezko Ordainsariak 2024 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Antolaketa-teknikaria | 44,14 | 1,66 | 45,80 | 19,13 | 0,72 | 19,85 | 6,10 | 0,23 | 6,33 |
| 1. lanaren analista | 43,26 | 1,62 | 44,88 | 18,77 | 0,70 | 19,47 | 7,30 | 0,27 | 7,57 |
| Administrari laguntzailea | 41,65 | 1,56 | 43,21 | 16,66 | 0,62 | 17,28 | 9,84 | 0,37 | 10,21 |
| Ingeniaria | 56,78 | 2,13 | 58,91 | 14,69 | 0,55 | 15,24 | 20,28 | 0,76 | 21,04 |

| | Zenbatekoa 2023 | 3,75% | Zenbatekoa 2024 |
|---|---|---|---|
| Apirileko ordainsaria | 279,66 | 10,49 | 290,15 |

2024ko urtarrila



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.10.30 06:43:36 Z